

ZIENTZI BERRIAK

LABURKI

Termitak, Afrikako lurraldetan lo katz eta lohiez egindako kabien erai-kile sutsuak, ugari dira munduan. Ikerlari amerikar batek dioenez pertsona-ko 750 Kg termita omen dago munduan. Danetarik jaten duten intsektu asezin hauek, (etxean sartzen bazaizkizu, akabo!, berehala haltzaririk gabe gel dituko zara), eguratsaren poluitzaile omen dira ere. Eta ez, hola modukoak, Aktibitate industrial guztiak batuta baino gehiago poluitzen omen dute. Termitak jaurtikitzen dituzten poluitzaileak metanoa eta karbono(IV) oxidoa dira, 150 tonelada urteko.

.....

Trampinoiak artifizialki haztea lortuenez geroztik saio asko egin dira beste perretxiku zapoetsu eta estimatuagoak hazteko. Oso kasu gutxi tan lortu da exitoa. Bestela gertatu zaie Bordeleko INRA delakoko bi ikerlariari, pinondoa artifizialki haztea lortu bait dute. 1978.ean, bi ila

beteko pinu-kimuak, Boletus granulatus delakoaren mizelio batekin inokulatu zituzten. Zenbait ilabete ondoren, onddo honen mizelio-zuntzen eta zuhartzan sustraien artean mikrorizazioa gertatu zen. 1980.urtean pinu gazteok, utzitako mahasti batera aldatu ziren. Ehun baino onddo gehiago bildu ziren joan den udaran.

Aipatutako hau, perretxiku eta onddoak artifizialki hazteko programa zabal baten lehenengo urratsa izan da. Hurrengo urratsa, onddobeltza (boletus aereus) eta udaskeneko onddo zuria (boletus edulis) izango dira.

.....

Kitina eta zelulosa biopolimeroak hondar-uretatik uranio(VI)ioiak erauzteko erabil daitezke, Hawaii-ko Unibertsitateko zenbait ikerlarien arabera (Science, 219, 285, (1983)). Uranio-moduko metal astunak biometatzeko gaitasuna agertzen zuen penizilina-onddo

bat aztertzen hasi ziren ikerlariak. Onddoak, karbonato alkalinozko disolu- zioz tratatuz, absorbitutako uranioa, kuantitatiboki berreskuratzen zela aurkitu zuten. Ondorengo ikerketek, onddoa ez zuela bizirik egon behar uranioa absorbitzeko, eman zuten adit- zera. Are gehiago, ur irakinez edo alkoholez hildako onddoek uranio-har- keta handiagoa zuten. Eragin hauek, absortzioa zelulen paretetan ematen zela aditzera eman zuten. Honexegatik, ikerlariak paretako biopolimeroak az- tertzea ekin zioten, eta hauetako ba- tzuk, hala nola, kitina, zelulosa, zelulosa fosfatoa eta karboximetil zelulosa uranio erauzteko gai zirela aurkitu zuten.

.....

Geneva-ko Partikulen Fisikaren Eu ropear Laborategian (CERN) 100 fisika ri baino gehiagok elkar-lanean eraman dako ikerketa-programa baten ondorioz W partikula subatomikoaren existen- tzia konfirmatu dute. W partikulak, izadiaren lau funtsezko indarretatik baten garraiatsaile direla uste da. Indar hau, indar nuklear ahula da hain zuzen. Partikula, 1982.eko aben- duan CERN-en egindako protoi/antipro- toi talka masibo baten ondoren detek- tatu da.

Partikula hauen existentzia oso euskarri ona da fisikaren unifikazio- teoriantzat zeintzuk indar natural guztiak elkarlotu nahi bait dituzte.

.....

Canadiar eta Iparramerikar astro- nomilari-talde batek orain artean aur- kitu deneko zulo beltz handiena loka- lizatu dute. Badu, zulo beltz honek, beste ezaugarri bat ere bai, Esnebide- tik at aurkitu den lehenengoa izatea

Michigan University delakoko Anne P. Cowley-k eta Victoria-ko (British Co- lumbia, Canada) "Dominion Astrophysi- cal Observatory-ko David Campton eta John B. Hutching-ek Magallanes-en Ho- dei Handia izeneko galaxian, zein Es- nebideari gertuen zaion galaxia bait da, aurkitu dute zulo beltza.

Irakurleak jakingo duenez, zulo bel- tza, espazioaren zonaldea non materia horren trinkoa bait da, argia berak ere ezin duela eremu grabitazionale- tik ihes egin, da. Zulo beltz berri hau, izar ikusgarri baten laguna da eta izarraren orbital konportamoldea az- tertuz lokalizatu ahal izan da.

.....

Penizilinak eta β -laktama motako beste antibiotikoez nola egiten duten lan aurkitu omen da. Streptomyces R-61 bakterietatik lortutako entsima batez X izpien errefrakzioaren bidezko ana- lisisiek, antibiotikoez entsimaren era- gin katalisatzailea blokeatzen dute- la, aditzera eman dute.

.....

Linus Pauling-ek eta J.E. Erstron- -ek Californian egindako azterketa baten arabera ez dirudi biziaren luza pena eta gaixotasunen urritzea bitami- na-harketa-ri lepora dakiokkeenik. Hone- la, eman dute aditzera, bederen, adin heldueko gizaseme-talde batekin egin- dako estudio estatistikoez.

.....